

## Goruetan, lihoa gorri

**B**

eraz Ur, *prêt-à-porter* delako bat da ikurriña zuri-gorri-berdea. Eramateko pronto dagoen oihal koloretsu horietako bat da euskal naziotasunaren isla eta ispilua, ikur nagusia.

Dendara joan eta segituan erosteko janzkera horixe da modaren ekonomia jakin batek behinola ekarri zigun arropa-mota. Baina, moda-filosofia ere bada *prêt-à-porter* delakoa.

Eramateko pronto den hori ez da etxean amona zaharrak ohiko patroiei segituta egindako brusa. Ez da auzoko ardienez egindako gerrikoa. Edo lihozko alkandora.

Eramateko pronto delako horrek ezin onar dezakeen beste *tempus* bat behar dute amonaren mihiseek. Laztanaren eta hitz gozatuaren pausua behar baitute horiek.

\* \* \*

Materialak eta inmaterialak izan daitezke gaur *prêt-à-porter* ikurrak. Telazkoak edo burdinazkoak, haragizkoak nahiz telebistazkoak. Ekonomikoak zein politikoak, erlijiosoak, filosofikoak...

Esaterako, ekologia-zaletasuna bada ikur moduko bat. Mendebalde aurreratuan, modan da ekologista izatea. Urrezko markoa duen koadro baterako ikur-gai bilakatu da ekologia. Eta, enpresa erraldoien kasuan marka, marka-irudia.

Erregai ekologikoak sortu nahi dituzte multinazionalak; gizakiaren mesederako, ingurumenaren mesederako. Ezkaratza berotzeko, ikatza erre izan dugun moduan; *dnda* pizteko, indar nuklearrak edo hidroeletrikoak baliatu izan garen bezala; hozkailuan txakolina freskatzeko, mendi gailurrak haize-errotaz landatu ditugun legez; arto, olo eta gari-ale irakina jarriko diogu orain *audi3*ari bere andelean.

Laboreak... surtarako!

Eta, patrikan eramateko pronto den ekologia horren izenean, barra-barra erein da



J. I. Basterrretxea

Erro

Apalategi

\* \* \*

ale transgenikoa, hots: bere buruaren jabe izan ez eta ugaltzeko gaitasuna galdu duena.

Hartara, amona zaharraren adabakirik onartzen ez duen *prêt-à-porter* delako bat da hazi transgenikoa: uzta bakarrerakoa izanik, aldi jakinerako baizik ez baitu balio.

Automobilentzako labore-hazi horiez gain, jardun politiko gorrinak, irakaskuntza-lerro uhertuak, eta metafora literario herdoilduak izan daitezke transgeniko. Modu bertsean, erakunde armatuen agiriak edo militar profesionalen negar-gazeko prentsurrekoak. Etorkizunerako proiektzio beregaina oztopatzen duten heinean.

Eramateko pronto direnen uzta transgenikoekin jolastera eta bizitzera ohitu gura gaituzte batzuek eta besteek.

Adibidez, goragoko esangura politiko bateko zirkunskripzioa amestuko lukeen gurea bezalako gizarte batean, administrazio-erkidego bera osatzen dutenentzat zerga-politika komunak izan direnak eta hala izaten jarraitu dezaketenak elkarrenganako arrotz bilakatu nahi dituztenean foru-aldundiko politikari batzuek.

Edo, autodeterminazio kulturalik eta erabaki linguistiko beregainik gabe, zazpi nahiz lau, hiru edo bi lurralde historiko –historiko?– lituzkeen *Euskadi Burnujabe* bat eraikitzeko, kaleetako kontainerrak bakean ezin utzi direnean.

Edo, Disneyren *Mickey* arratoiaren eta *Pluto* zakurraren kartoizko mozturroak janzten dituztenean baten batzuek, betiereko *tradizioaren* izenean, Bidasoaldeko herri markatuetan andrazkoak soldadu izan ez daitezke.

Edo, multinazionalak ehundutako ikurriñak eskuetan hartuta, Espainiako ligatxapelketa adurra eta lerdea galdu arte txalotzen denean.

Angel, ardatza galdu ote du Alostorreko goruak? ■

Eramateko pronto direnen uzta transgenikoekin  
jolastera eta bizitzera ohitu gura gaituzte  
batzuek eta besteek (...)  
Angel, ardatza galdu ote du  
Alostorreko goruak?